

2007KO UZTAILAREN 11KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko uztailaren hamaikan, arratsaldeko zazpitan, Udal Osoa biltzen da Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, aurrez honetarako egindako deialdiaren arabera, ez-ohiko batzarra egin asmoz. Honako zinegotzi hauek bertaratu dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Jose Manuel Serna Portugal eta Iñaki Saldaña Herrero.

Angel Hernandez Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Toki Entitateen Erregimen Juridiko, Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiak bere 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz ondorengo puntuen azterketa, erabakitze eta jakinarenean gainean gelditzea du helburutzat batzaraldi honek. Halaber eta zinegotzi kargua hartzeko bertaratu dela eta, eguneko gai zerrendaren lehen puntu gisa kargu hartze hori eginez ematen zaio hasiera bilkurari.

I.- ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.-

Kredentzialak erakutsiz Javier Fco. Moreno Gonzalez de Lara bertaratu da zinegotzi kargua hartzera.

Kredentzial hori egiaztatu ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxe honetara bidalitako ziurtagiriarekin bat datorrela ikusten da eta beraz kargua ematen zaio.

Jarraian Alkateak adierazten du Eukeni Lasa Lasa herritarrak egoera politikoari buruz Osoko Bilkuraren aurrean hitzegin ahal izatea eskatu duela idatziz eta bera jendartean dagoelarik hitza ematen diola.

Eukeni Lasa Lasak bere hitzaldia egiten du. Esaten du esan behar duena bere iritzia dela eta bere izenean ari dela, eta Lazkaok bizi duen egoerari buruz hitzegin nahi duela.

Une honetan Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratzen da.

Eukeni Lasak esaten du, besteak beste, 739 herritar udal honetatik kanpo gelditzeak min ematen diola eta batzordeak eratzerakoan hau kontutan izateko, eta beraiei dagozkien lau zinegotziak ere kontutan izateko. Bestalde eta presoen aldeko ostiraletako kontzentrazioak haintzat hartzeko eta esku bat botatzeko.

II.- ALKATEORDE ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREKO PARTAIDE IZENDAPENEN BERRI EMATEA.-

Jarraian tokiko gobernu batzarraren partaide eta alkateordei buruz emandako alkateztaren ebazpenaren berri ematen da.

Alkatetzaren ebazpen horretan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak, bere 52.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzordeko partaide izendatu dira ondorengo zinegotziak: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Jabier Arrasate Aierbe.

Halaber eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak bere 46.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzarreko honako partaide hauek izendatu dira alkateorde:

- Lehen alkateorde Felix Urkola Iriarte.
- Bigarren alkateorde Amagoia Naldaiz Mingo.
- Hirugarren Alkateorde Xanet Barreras Jauregi.
- Laugarren Alkateorde Javier Arrasate Aierbe.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- UDAL TALDE POLITIKO ETA BOZERAMAILEEI BURUZ AURKEZTUTAKO IDATZIEN BERRI EMATEA.-

Jasotako idatzien arabera Lazkaoko Udalaren talde politiko eta bozeramaileak honako hauek dira:

- EAJ udal talde politikoa. Bozeramailea Felix Urkola Iriarte.
- PSE-EE (PSOE) udal talde politikoa. Bozeramailea Juan Manuel Serna Portugal.
- EB-B udal talde politikoa. Bozeramailea Iñaki Saldaña Herrero.
- PP udal talde politikoa. Bozeramailea Javier Fco. Moreno Gonzalez de Lara.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- ALKATEAREN LIBERAZIOA ETA ORDAINSARIAK.-

Patxi Albisu Estensoro Alkatea kargu hori betetzeko soldatapean jartzea proposatzen da. Hasieran eta 2007ko abuztuaren 31ra arte lansaio erdian eta irailaren 1etik aurrera lansaio osoan.

Ordainsariei dagokionean eta aurreko alkatearentzat erabilitako erizpide berarekin jarraituz, EFAULEBAREN 27 mailari dagozkionaren araberrakoa izango lirateke, 2007 urterako, lansaio osoan, berrogeita hamaika mila ehun eta laurogeita hamaika euro eta hemeretzi zentimo (51.181,19 €), hain zuzen ere.

Baita ere karguaren eginkizunak erabateko arduraldian betetzeagatik soldataren %15a gehituko litzaioke, hau beste inolako jarduerarik ez duela egiten eta berak hala eskatutakoan hasiko delarik aplikatzen.

Saldaña zinegotziak, EB-E, esaten du liberazioa ez dela beharrezkoa ikusten eta aurka bozkatuko duela.

Serna zinegotziak, PSE-EE (PSOE), esaten du abstenitu egingo dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ), aurkako botu 1 (EB-B) eta 2 abstentziaz (PSOE, PP) proposamena onartu egiten du.

V.- TALDE POLITIKO ETA ZINEGOTZIEN EKONOMI ASIGNAZIOAK.-

Talde politiko eta zinegotzien ekonomi asignazioei buruz egiten den proposamena ondorengoa da:

- Talde politikoari, barneratzen duen zinegotzi bakoitzeko hilean 306, 72 € ordainduko zaio.
- Zinegotziek berriz honako asignazioak izango dituzte:
 - o Batzordeburu ez denari 76,65 € hilean.
 - o Batzordeburu denari 306,72 € hilean.

Aurreko legegintzaldian ez bezala orain batzorde guztiak maila berekoak kontsideratuko lirateke.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du ez daudela ados, proposamenak gehiengoa duen taldeari egiten diola mesede eta gutxiengoa duten alderdiak zigortzen dituela iruditzen zaiela eta abstenitu egingo dela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du Sernak esandako gauza bera adierazten duela eta ez dagoela ados.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ), aurkako botu 1 (EB-B) eta 2 abstentziaz (PSOE, PP) proposamena onartu egiten du.

VI.- OSOKO BILKUREN ALDIZKOTASUNA ETA EGITE ORDUA.-

Osoko Bilkuren aldikotasun eta hauek egiteko egun eta orduari buruz, Osoko Bilkurak, aho batez, ohiko batzaraldiak hilean behin egitea erabakitzen du. Bilkura hauek hileko azken ostegunean egingo dira, arratsaldeko 7etan.

VII.- BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA ETA BATZORDE HAUETAKO PRESIDENTEEN IZENDAPENA.-

Batzorde Informatzaileen sorrera eta batzorde hauetako presidenteen izendapenari buruz honako proposamena egiten da:

- Berrikuntza, Komunikazio eta Partehartze Batzordea. Presidente Amagoia Naldaiz Mingo.
- Ogasuna, Pertsonala eta Kontu Berezien Batzordea. Presidente Inazio Estensoro Eskisabel.
- Hirigintza, Etxebizitza, Mugikortasuna, Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuak Batzordea. Presidente Felix Urkola Iriarte.
- Gizartekintza, Sanitatea eta Inmigrazioa Batzordea. Presidente Lourdes Garmendia Guerra.
- Nekazaritza, Mendi eta Ingurugiroa Batzordea. Presidente Inazio Barandiaran Aldasoro.
- Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordea. Presidente Xabier Arrasate Aierbe.
- Kirola eta Gazteria Batzordea. Presidente Xanet Barreras Jauregi.

Hauez gain eta denboran bere egiteko zehatzera mugatuta beste bi batzorde sortzea proposatzen da:

- Areria kulturgunea
- Kiroldegia birmoldaketa

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du batzorde guztietara iritsi ahal izatea ezinezkoa izaten zaiela askotan eta informazio guztia izatearren batzorde hauetako bileren aktak alderdi guztiei bidaltzea eskatuko lukeela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du batzorde guztiak kolore bakarrekoak izango direla ikusita aurka bozkatuko duela.

Urkola zinegotziak (EAJ) Serna zinegotziari erantzunez esaten dio orain arte alderdi guztiekin egon ohi izan dela beti eta informazio guztia eman zaiela.

Serna zinegotziak Urkola zinegotziari erantzunez esaten dio berak planteatu duena aktak egitearena dela, lan politikorako oinarritzkoa iruditzen zaiolako.

Urkola zinegotziak erantzuten dio aktena horrela izango dela baina gainera horren gainetik informazio guztia izango dutela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ), aurkako botu 1 (EB-B) eta 2 abstentzioz (PSOE, PP) proposamena onartu egiten du.

VIII.- UDALAK PARTE DUEN ERAKUNDEETAN UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-

Udalak parte hartzen duen organu kolegiatuetan ordezkariak izendatzeari buruz, honako proposamen hau egiten da:

- Goierri Beheko Industria Lurran: Patxi Albisu Estensoro.
- GOIEKIn: Patxi Albisu Estensoro.
- Goierriko Herrien Ekintzan: Patxi Albisu Estensoro.
- Ikaslan Fundazioan: Patxi Albisu Estensoro.

- EUDELen: Patxi Albisu Estensoro.
- Sasieta Mankomunitatean: Patxi Albisu Estensoro, Felix Urkola Iriarte; ordezkarak, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro.
- GOIMENen: Patxi Albisu Estensoro.
- Enirio-Aralar Mankomunitatean: Patxi Albisu Estensoro.
- Tolosako Hiltegiaren Mankomunitatean: Patxi Albisu Estensoro.
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioan: Patxi Albisu Estensoro.
- San Benito Ikastolan: Xanet Barreras Jauregi.
- Lazkao Lantzen, S.A. Udal Elkartearen:

EAJtik Patxi Albisu Estensoro, Felix Urkola Iriarte, Inazio Estensoro Eskisabel.

PSOEtik Juan Manuel Serna Portugal.

EB-Betik Iñaki Saldaña Herrero.

PPTik Javier Fco. Moreno Gonzalez de Iara.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du orain arte aurreko puntu guztietan abstenitu egin direla baina oraingo honetan aurka bozkatu behar dutela, uste dutelako puntu hau egokia izan zitekeela beste alderdi politiko batzuei atea irekitzeko baina ikusten duela ez dihoaztela bide horretatik.

Urkola zinegotziak (EAJ) Serna zinegotziari erantzunez esaten du ez zaiola hori horrela denik iruditzen, batzuetan Osoko Bilkurara ekarri baldin badira ere berez alkateari dagozkion ordezkariak direlako, beste batzuetan bailara mailan egindako akordio politikoaren arabera izendapenak izaten direlako eta Lazkao Lantzenen kasuan bezala, alderdi guztiei ematen zaiela sarrera.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du Foru Aldundiak errausgailuaren gaiaren inguruan erabaki behar duenean oso garrantzitsua dela Sasietan zein ordezkari izendatzen den.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, eta Lazkao Lantzen, S.A.ren ordezkariak izendatzeari dagokionean Elkarte honen Batzar Orokor izaerarekin jarduten duelarik, aldeko 8 botu (EAJ), aurkako 2 botu (PSOE, EB-B) eta abstentzio 1ez (PP) proposamena onartzea erabakitzen du.

IX.- BILKURAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.